

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Jatetxe, taberna eta antzekoekin elkartu beharko ginateke gure bezeroei haiei buruzko informazioa eta eskaintzak egiteko. Era berean, eskualde bakoitzeko turismo sailaren bitartez leku bakoitzean interesgarriak izan daitezkeen kokapenak eta haiei buruzko informazioa lortu dezakegu. Gure plataforma sortzeko ezinbestekoa dugu informatikariren bat edo arlo digitalari buruzko jakintza sakonak dituen norbait, lehenago lortutako datu guztiak plataforman gehitzeko eta eguneratzeko.

Elkarte hauek garrantzitsuak dira guretzako gure plataforman eskainiko dugun informazio eta zerbitzu guztiak kalitatezkoak direla ziurtatzeko. Elkarte hauekin indarrak batuz gure bezeroei ahalik eta produktu honena eskainiko diogu.